



FAMIPAN
POLIGONO DE LEZO

**Ogi eta
boiloetan
espezialitatea**

**Zorionak
lezotar guztiei**

Jaizkibel hirib. 23 LEZO
Urune pol. 110-23 lokala C
Tel. 943.51.50.75 LEZO



**Zu eta ni euskaraz arituz
jai euskaldunak egingo ditugu**

Donibane kalea 12, behea - Tf.: 943 51 91 44 - LEZO



yointflex®

**JUNTURAK • ESTANKOTASUN PRODUKTUAK
ETA TUTUERIETAKO AKZESORIOAK**

• Juntura mota guztiak. Zenbait adibide:

KLINGERIT, NEOPRENO, NITRILLO eta abar;
ESPIROMETALIKOAK, METALOPLASTIKOAK, eta abar;
eskakizun handietarako ENPAKETAZIOAK, hala nola GFO, PTFE
GRAFITO HUTSA eta abar.

• LANTEGI ETA BULEGOAK:

Gaintxurizketa bidea, 7 - Tel.: 943 52 85 83 - Faxa: 943 52 85 84 - LEZO



**MARTIN IRIONDO
ESPEZIALITATEAK:**

- Lakatu naturalak
- Tindatuak
- Koloreetako lakatuak, zuria, marfila, beltza eta abar...
- Bernizak kanpoaldeetarako, leihoetarako eta kontraleihoetarako
- Zureria lakatua txukuntzeko lanak
- Eskuz egindako zur eta horma lanak

Zahartzeak
Marrazkiak, Hormetako Pintura eta abar...
Imitazioak, harria, marmola, brontzea eta abar...

108 pol. ITURRIN eraikina - 37 lokala - 2. B
Tel.: 943 49 13 55 - Faxa: 943 49 30 89
20100 LEZO (Gipuzkoa)



pinturas iztieta

**1000 pzta gorako erosketekin
opari bat izango duzu**

**Etxea kolorez bete ezazu
behar duzun kolorea momentuan**

Pol.Ind.103 - 20100 LEZO - © 943 52 47 00 - Faxa: 943 52 85 85

Pl.Diputación, 1 - 20100 RENTERIA - © 943 51 91 00 - Faxa: 943 51 91 04



Mendizale gazteak 30 bat lekutatik helduko direla uste dute antolatzaileek.

XOUSE SIMAL

Denok mendira!

Eskola Arteko XIII. Finalista Eguna Lezon izango da



GIPUZKOA osoko mendizaleen topagune izango da gure herria igande honetan, etzi. Izan ere, Gipuzkoako Finalista Eguna bertan ospatuko da. Egun horri begira, Allerru Mendi Taldeko kideak burubelarri lanean aritu dira azken hilabeteotan, eta dagoneko guztia prest dute, herrian bilduko diren 800 bat mendizaleei ongietorria emateko.

Aurten eskola arteko XIII. mendi lehiaketa izango da. Urtero bezala, Gipuzkoako Mendizale Federazioak Eskola Kirolaren Baitan mendi lehiaketa antolatu du, eta ikasturte honetan hamar bat irteera proposatu ditu. Horietatik zazpi bat ibilbide egin dituzten ikastetxeek eta mendi elkarteek aukera dute urtero festa horretan parte har-

tzeko. Aurtengo ospakizunak bat egingo du Mendekoste jaiekin.

Ibilbide txukuna

Irteera 08:30ean izango da, Gurutze Santuaren plazan. Aurretik parte-hartzaile guztiek izena eman beharko dute plazan bertan, harrera mahaietan. Guztira 7 kilometro eta 200 metroko ibilbidea egin beharko dute hurrek. Plazatik abiatuta, Olatzartik barrena Miakta, Tiñelu eta pistara aterako dira; ondoren, Zaskuna eta Frantsesen Gainera iritsita, Piñudian bertan ordu erdiko hamaiketako egingo dute. Antolatzaileek banatuko duten ura eta frutarekin indarberritu ostean, zeharkaldiari ekingo diote; Londres, Buenos Aires, Txartiku, Sorotxo eta bertako

inguruak ibili ostean, plazan bertan bukatuko dute.

Bi ordu eta erdiko ibilaldia- ren ondoren, aurtengo mendi finalistei diplomak banatuko zaizkie, eta ondoren 200 opari zozketatuko dira.

Ondoren, bazkaria eta haurrentzako jokoak izango dira. Allerru Mendi Elkarteko bazkideentzako bazkaria izango da, eta etxeko txikiek ere primeran pasatzeko aukera izango dute herri jokoe- kin; sokatira, lasterketa...

Seinaleak

Gipuzkoa osotik 30 bat mendi talde etorriko dira, eta, horregatik, zenbait neurri hartu dituzte. Herrian sartu aurretik dagoen biribilgunean aparkalekuaren eta ibilbidearen seinalizazioa ikusi ahal izango da, eta ibilbideko seinaleak errespetatzeko eskatu dute antolatzaileek. Gaintxurizketako bidean dagoen Algeposako gunean autobus eta autoentzako aparkalekua izangoa da.

Azken ohar bat ere zabaldu dute Allerrukoek, Zaborra etxera lelopean; ingurua garbi mantentzeko, alegia.

MERCADAIZ, S.A.

**GASOLIOEN ETXEZ-ETXEKO
SALMENTA ETA BANAKETA**



LEZO
Ipintza kalea, 47 - tel:943 52 96 00

IRUÑEA
Ferrocarril kalea, z/g - tel:948 14 38 33